


Zirkulazio-aparatuko gaixotasunek sortu zuten ospitaleratze gehien Euskal AEn 2003an

100 biztanletik 13 ospitaleratuak izan ziren tratamendua jasotzeko

2003an, 273.723 lagun baino gehiagori, hots, aurreko urtean baino %0,9 gehiagori eman zitzaizen alta Euskal AEko akutuen ospitaleetako eguneko kirurgia-unitatean atenditu edo ospitaleratuta egon ondoren, Eustaten datuen arabera. Horrek esan nahi du 100 biztanletik 13 ospitaleratuak izan zirela tratamendua jasotzeko. Ospitaleratutako guztien %76,6 ospitale publikoetan atenditu ziren eta %23,4 ospitale pribatuetan.

Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak dira oraindik ere ospitaleratze-kausa nagusia eta 2003an ospitaleratze guztien %12,8 eragin zuten. Estatuan ere gauza bera gertatu zen, 2002an ospitaleratzeen %12,9 eragin baitzuten.

1. Grafikoa.- Akutuen ospitaleetako alta emandako pazienteak, sarrien ematen diren diagnostiko-taldearen eta sexuaren arabera



Iturria: EUSTAT

Talde horretan, sarrien izaten direnen artean honakoak bereiz ditzakegu: bihotzari eragiten diotenak: bihotz-gutxiegitasuna (%10,7), iskemiko kronikoak (%10,7), bihotzeko disritmiak (%9,2) eta miokardioko infartu akutua (%7,7); zainetako gaixotasunak: barizeak (%11,2); eta garuneko hodietakoak: garun-arterien buxadura (%6,6).

Bigarren ospitaleratze-kausa digestio-aparatuko gaixotasunak izan ziren eta ospitaleratze guztien %11,4 eragin zuten; horien artean, ohikoenak iztai-etenak (%17,4) izan ziren.

Hirugarren kausa nerbio-sistemari eta sentimenen organoei eragiten dieten gaixotasunen taldea izan zen (ospitaleratze guztien %9,9), eta horien artean aipatzekoak izan ziren kataraten interbentzioak, talde horretako ospitaleratzeen %59,7 eragin baitzuten.

Gaixotasun ohikoenen gainerako taldeetan daude arnas aparatukoak (%9), jarraian neoplasiak (tumoreak) (%8,9) eta haurduntza, erditze eta erdiberriaroko bestelako konplikazioak (%8,8). Zirkulazio-sistemako gaixotasunen taldeak ospitaleratze gehien eragin arren, neoplasien (tumoreen) taldea izan zen heriotza gehien eragin zuena.

2002arekin alderatuta, diagnostikoen talde handien artean, proportzioan, haurduntza, erditze eta erdiberriaroko konplikazioekin erlazionatutako patologien taldea hazi zen gehien eta arreta behar izan zutenen %5,8 ekarri zuen. Horrek baieztatu egiten du Eustaten Jaiotzen Estatistikak aipatutako jaiotzen gehitzea aldi horretan. Diagnostikoen talde horretako patologiarik ohikoenen artean, nabarmen gehitu ziren haurdunaldi luzeagatik izandako ospitaleratzeak (%33) eta haurdunaldia konplikatzuten amaren gaixotasunek eragindakoak (%31,4), batez ere anemiak eragindakoak.

Gizonezkoen artean zirkulazio-aparatuko gaixotasunek eragin zituzten ospitaleratze gehien eta emakumezkoen artean, aldiz, haurduntza, erditze eta erdiberriaroko konplikazioak.

2003an alta medikua jaso zuten guztien %48,7 gizonezkoak izan ziren eta %51,3 emakumezkoak. Baina haurduntzak eta erditzeak eragindako altak alde batera utzita, gizonezkoen portzentajea %53,4ra iritsi zen.

Gaixotasun-taldeka, zirkulazio-aparatuarekin erlazionatutakoek eragin zituzten gizonezkoen ospitaleratze gehienak, ondoren digestio-aparatukoek eta arnas aparatukoek. Emakumezkoen artean, ospitaleratze-kausa nagusia haurduntza, erditze eta erdiberriaroko konplikazioekin lotutako gaixotasunak izan ziren, ondoren nerbio-sistemakoak eta sentimen-organoetakoak, eta hirugarren, zirkulazio-aparatuari eragiten dietenak.

Adin-taldeka, ospitaleratutakoen portzentaje handiena 65 urte eta gehiagokoek taldeak izan zuen (%40,5); ondoren, 15-44 urte artekoak (%29) eta 45-64 urte artekoak (%25) eta urrunago 0-14 urte artekoak (%5,5).

Adin-taldeka, 14 urtetik beherako biztanlerian ospitaleratze gehien eragin zituen diagnostikoa amigdalitis kronikoa eta adenoideak izan zen; 15 eta 44 urte artekoen taldean (haurdunaldiak eta erditzeak alde batera utzita) eta 45 eta 64 urte artekoenean, aldiz, belauneko barne-arazoei eragin zuten ospitaleratze gehien; 65 urtetik gorakoek artean kataratak nagusitu ziren.

Pazienteko batez besteko egonaldia 5,4 egunekoa izan zen (2002an 5,5 egunekoa). Sexuaren arabera, gizonezkoek batez besteko 5,8ko egonaldia egin zuten eta emakumezkoek 5 egunekoa. Batez besteko egonaldi luzeenak eragin zituzten diagnostiko-taldeak honakoak izan ziren: gaixotasun mentalen taldea (14,4 egun), jaiotza-ingurukoena (13,7) eta tumoreena (8,4 egun). Bestalde, egonaldirik laburrena

nerbio-sistemako gaixotasunen taldeak eta sentimen-organoenak (1,2 egun) eta haurduntza, erditze eta erdiberriaroko gaixotasunenak (3 egun) eragin zuten.

kataratak izan ziren interbentzio kirurgikorik sarrienak

2003an alta hartu zutenen %56ri ebakuntza kirurgikoren bat egin zitzaien. Sarrien egin zirenen artean nabarmendu egin ziren kataratetako ebakuntzak (%10,6), prozedura obstetrikokoak, hots, erditzeko indukzioa edo laguntza (%7,9) eta artikulazioen gaineko interbentzioak (%5,5), batez ere belaunekoak.

Adin-taldeka, 0-14 urte artekoen artean, ohikoenak amigdaletako eta adenoideetako ebakuntzak izan ziren; 15-44 urtekoen artean, prozedura obstetrikokoak (erditzeko indukzioa eta laguntza) eta belauneko interbentzioak; 45-64 urte artekoen taldean, belauneko ebakuntzak eta eten-konponketak eta 65 urte eta gehiagokoan taldean, kataratak nabarmendu ziren.

1. taula.- Alta emandako pazienteak eta batez besteko egonaldia (egunak), diagnostiko-taldee jarraiki, sexuaren arabera

	Gizonezkoak		Emakumezkoak	
	altak	egunak	altak	egunak
GUZTIRA	133.365	5,8	140.358	5,0
Gaixotasun infekziosoak	2.218	7,9	1.493	8,1
Tumoreak	12.658	9,3	11.573	7,3
Gaixotasun endokrino eta metabolikoak	1.847	6,0	2.185	6,2
Gaixotasun mentalak	2.744	13,5	2.104	15,5
Nerbio-sistemako eta sentimen-organoko gaixotasunak	11.498	1,6	15.651	1,0
Zirkulazio-aparatuko gaixotasunak	20.369	6,6	14.685	6,2
Arnas eritasunak	14.945	6,0	9.629	5,8
Digestio-aparatuko gaixotasunak	18.543	5,5	12.719	6,3
Aparatu genitourinarioko gaixotasunak	6.820	4,9	9.700	3,5
Larruazaleko eta azalpeko gaixotasunak	2.255	3,9	1.438	5,1
Haurdunaldia eta erditzea	-	-	24.175	3,0
Gaixotasun osteomuskularrak eta lokomotoreak	11.596	3,9	11.932	4,7
Hausturak eta lesioak	12.315	6,7	8.441	8,8
Beste batzuk	15.557	5,0	14.633	4,6

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Maite Ugarte

Tlf:+34-945-01 75 48 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp